


Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,8 egin dute gora 2025eko urtarrilean, aurreko hilarekin alderatuta

2024ko urtarrilaren aldean, industria-prezioek % 1,9 egin dute gora

2025eko urtarrilean, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-prezioek % 1,8 egin dute gora aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Urtarrileko urte arteko tasa, hau da, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza jasotzen duena, % 1,9 igo da.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2025eko urtarrilean, *Kokeak eta petrolio-fintzea* (% 5,1), *Material eta ekipo elektriko fabrikazioa* (% 4,6) eta *Ateratze-industriak* (% 3,8) sektoreetan izan direla prezio-igoerarik handienak, aurreko hilarekin alderatuta. Aitzitik, hilabete arteko jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak hauek izan dira: *Kautxua eta plastikoa*, *beste produktu mineral ez-metalezkoak* (% 1,2) eta *Industria kimikoa* (% 0,7).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Euskal AEko Industria prezioen indizea.

Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	114,4	1,8	1,9
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	131,3	3,8	4,2
Manufaktura-industria	116,5	1,8	1,1
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	123,7	0,0	1,0
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	110,2	-0,3	2,9
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	123,6	1,2	2,7
Kokeak eta petrolioaren fintzen	121,5	5,1	-2,8
Industria kimikoa	130,1	-0,7	4,7
Botiken fabrikazioa	109,8	1,6	1,6
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	116,2	-1,2	-1,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	111,4	2,4	1,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	111,9	0,9	2,9
Material eta ekipoen fabrikazioa	118,5	4,6	5,0
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	115,3	1,6	-1,9
Garraiorako materialen fabrikazioa	116,1	1,5	4,3
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	117,1	0,9	3,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	90,5	1,7	13,6
Ura	126,4	0,6	6,2
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	120,0	0,3	1,9
Kontsumoondasun iraunkorrak	115,3	0,3	4,1
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	121,3	0,3	1,3
Ekipo-ondasunak	115,4	1,7	2,1
Bitarteko ondasunak	115,4	1,5	1,3
Energia	107,9	3,7	3,0

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Otsailaren 25a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, 2024ko abenduaren aldean, *Energiaren* prezioa % 3,7 igo da. *Ekipo-ondasunen* prezioa % 1,7 igo da, eta *Bitarteko ondasunen* prezioa % 1,5. *Kontsumo-ondasunen* prezioek % 0,3 egin dute gora, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioek % 0,3 egin baitute gora.

Urte arteko datuei erreparatuta, hau da, 2025eko eta 2024ko urtarrileko datuei erreparatuta, prezioen igoerarik handienak *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* sektorean (% 13,6ko igoera) eta *Ura* sektorean (% 6,2ko igoera) izan dira. Aitzitik, urte arteko prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten sektoreak *Kokeak eta petrolioaren fintzea* (% 2,8) eta *Makineriaren eta ekipoen fabrikazioa* (% 1,9) izan dira.

Xede ekonomikoaren arabera, 2024ko ondazun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza, kasu guztietan, gero eta handiagoa izan da. *Energiaren* prezioak % 3,0 igo dira, eta *Ekipo-ondasunen* prezioak % 2,1. *Kontsumo-ondasunen* % 1,9ko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* (% 4,1ko igoera) eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* (% 1,3ko igoera) izan duten igoera dela eta. Azkenik, *Bitarteko ondasunen* prezioek urte-arte tasan % 1,3ko igoera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % **75,71**ko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62